



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALEKO KULTURA / FESTAK /
HEZKUNTZA SAILA - BIKOIZTUA JASO DUT.

Azpeitia, 20.12.2025 (e)ko... *[Signature]* 12.a

**UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI ZUZENEKO
DIRULAGUNTZA EMATEA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA 2024. (2025DZKT0006 /
25-19D)**

BILDURIK

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua.

Bestetik, **IHINTZA ELUSTONDO LEUNDA**, NAN 44.331.057-Y duena, UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEKOk lehendakaria (IFZ: F75221226).

BERTARATU DIRA

Lehena, Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan, Udaltzazak 2023ko ekainaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN ordezkari-lanetan, bere organo gorenak 2021eko azaroaren 4an artezkaritza kontseiluko erabakiaren bidez honetarako baimendua.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriak arautzen dituen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak zioen azalpenean jasotzen du Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri aginteen esku jartzen dutela euskararen erabilera normalizatzea eta garatzera bideratutako neurriak hartzea. Hala, legearen 26. artikulua xedatzen du euskal botere publikoek gizarte-bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera sustatzeko neurriak eta bitartekoak hartuko dituztela, herritarrek hizkuntza horretan jarduteko aukera izan dezaten.

Modu berean, apirilaren 7ko 2/2016 legeak -Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak- eskumen propioa aitortzen die Udalei euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko. Besteak beste, eskumen honen egikaritzan beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan laguntzea izango dute.

Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak 2019ko ekainean sortu zen irabazteko asmorik gabeko Elkarte bat da (EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean 2795 orri zenbakian inskribatua). Bere **helburua** Urola Kostako herritarren eta entitateen informazio eta komunikazio beharrak asetzeko da, hainbat euskarri eta zerbitzuren bitartez, **eta euskara ardatz izanik**.

Izan ere, UKT euskarazko komunikabide multimedia bat da, papera, internet, eta telebista euskarrietan informazioa zabaltzen duena. Urola Kosta eskualde osorako egunkari bat dauka - **HITZA** - eta baita telebista bat ere -Erlo-. Lau herri aldizkari eskaintzen ditu: Karkara, Baleike, Uztarria eta Maxixatzen, eta sei webgune informatibo argitaratzen ditu.



Azpeitiko Udala

Urte asko dira Azpeitiko Udalak euskararen erabilera garatzeko, defendatzeko eta sustatzeko jarduerak bultzatzen dituela, bai Udal mailan bere hizkuntza normalkuntzarako planaren bidez, bai Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitako laguntza-lerroekin, eta baita, urteko aurrekontuarekin ere.

Urola Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartearen 2025. ekitaldirako komunikabide proiektua gauzatzeko, Udalak 2025. ekitaldirako aurrekontuan 82.500,00 €ko dirulaguntza izenduna aurreikusi du, proiektuaren helburua euskarak gizarte-komunikabideetan duen presentzia handitzea duelako.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioak aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikuluen arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

Dirulaguntza hau Azpeitiko Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago kultura sailari dagokion III. eranskineko euskararen presentzia eta erabilera bultzatzen duten tokiko komunikabideek bultzatutako ekimen eta proiektuei laguntzeko programa lerroan.

Beraz, dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

1. HELBURUA.

Hitzarmen honen xedea da UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEaren aldeko zuzeneko dirulaguntza bat arautzea, Elkarteko funtzionamendu-gastuak finantzatzeko.

UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEak, euskarazko komunikabide multimedia bezala bere ohiko jardueraren funtzionamenduaz gain, 2024. ekitaldirako egitasmoan jasotako ekintzak bideratuko ditu. Ekintza horiek **“UKT: 2025eko iharduera txostena”** dokumentuan jaso dira. Dokumentu hori hitzarmenaren **Eranskin** bezala jaso da.

Dirulaguntza honen helburuak betetzen direla egiaztatzeko honako balore adierazle hauek hartuko dira kontuan:

- Aisialdian euskaraz emandako zerbitzuen kopurua.
- Kultur ekoizpenaren arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua.



Azpeitiko Udala

- Argitalpen-ekoizpenaren arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua.
- Teknologia berrien arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Dirulaguntza hau arautuko dute, errege dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean bereziki xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako hura garatzen duen Erregelamenduan aurreikusitakoak ere, publikitate- eta lehia-printzipioei eragiten dienean izan ezik, bai eta, modu osagarrian, urriaren 1eko Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legean (urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) aurreikusitakoa ere.

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

Dirulaguntza hau zuzenean emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntza honen oinarri arautzaileak hitzarmen honetan zehazten dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28.2 artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 67. artikuluan xedatutakoa betez.

Udalaren Kultura Saila izango da laguntzaren organu-kudeatzailea, eta laguntzaren jarraipena Udalaren kultura Batzordea izango da.

Dirulaguntza honen publikitatea Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean egingo da.

4. GAUZATZE ALDIA

Diruz laguntzen diren jarduerako egiteko aldia 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte luzatuko da.

5. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA

Dirulaguntza Udalaren 2025. ekitaldirako gastu-aurrekontuaren kontura finantzatuko da, 82.500,00 euroko zenbatekoarekin, 1.0401.481.334.00.05 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

Hitzarmen honen helburua benetan gauzatzeko, Udalak honako eraikinaren erabilera lagatzen dio UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAri: Soreasu 1 kalean kokatuta dagoen eraikinaren lokal bat.

6. LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den UROLA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditu dirulaguntza kobratzeko.

Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren ordainketa une bakarrean eta modu aurreratuan egingo da, dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.



Azpeitiko Udala

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, erakunde onuraduna bermea eratzetik salbuetsita geratuko da.

7. BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatutako baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Jarduerak, dirulaguntza honekin finantzatzeaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikulua arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

8. JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundutako jardueren kontura egindako gastuak justifikatzeko epea hilabetekoa izango da, gauzatze-aldia amaitzen denetik aurrera. Hau da, 2026ko urtarrilaren 31a.

Dirulaguntzaren gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak gastu-egiaztagiria aurkeztu beharko ditu **justifikazio-kontuaren modalitatean**, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72. artikulua arabera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako gastuak egiaztatu ahal izango dira.

Justifikazio-kontuak honako informazioa eman beharko du:

1.- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketamemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Horien artean honako hauek adierazi beharko dira: Aisialdian euskaraz emandako zerbitzuen kopurua, kultur ekoizpenaren arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua, argitalpen-ekoizpenaren arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua eta azkenik, teknologia berrien arloan euskaraz emandako zerbitzuen kopurua.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

A) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.



Azpeitiko Udala

B) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

C) Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

D) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiria eskatuko dizkio onuradunari, dirulaguntza behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko.

Erakunde onuradunak bere gain hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua dirulaguntza publikoak justifikatzeari buruz ezartzen dituen betebeharrak.

Justifikazioan, hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan itzulketaren ordainketa-gutuna jaso beharko da, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72.2.g) eta 90. artikuluetatik eratorritako interesak ere.

9. GASTU HAUTAGARRIAK

Dirulaguntza honako kostu mota hauek finantzatzeko bakarrik erabiliko da:

A) Zuzeneko kostuak: elkarteko ohiko funtzionamenduari zuzenean lotutako gastuetatik eratorritakoak (langileak; dietak eta bidaiak; kontsumo-artikuluak; jardueraren garapenarekin zuzenean lotutako hornidura eta zerbitzu orokorrak; azpikontratazioa).

Erakunde onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduera azpikontratatu ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.2 artikuluan ezarritako muga barruan.

10. ALDAKETAK

Dirulaguntza ematea eragin duten inguruabarrak aldatuz gero, onuradunak hasieran aurreikusita zeuden jarduerak zabaltzeko, kentzeko edo aldatzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta.

Aldaketek ezin dute inola ere dirulaguntzaren zenbatekoa handitu.

11. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko ditu, eta, bereziki, betebeharrak hauek izango ditu:

A) Helburua betetzea, jarduera egitea eta dirulaguntza emateko oinarri den portaera hitzarmen honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan, baldintzetan eta epean hartzea, dagozkion justifikazioak aurkeztuz eta Kultura Sailak jarduketak behar bezala ebaluatzeko behar diren datuak emanaz.

B) Organo eskudunak eskatutako gastuak justifikatzea fakturekin eta merkataritzako



Azpeitiko Udala

trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuekin.

C) Diruz lagundutako jardueretarako funtsen aplikazioaren kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea, dokumentuak egiaztatuz eta Kultura Sailak finantzatzutako jardueren amaierako ebaluazioa eginez, bai eta Kontuhartzaitzak eta Kontu Auzitegiak funtsen finantza-kontrola egitea ere.

D) Dirulaguntza publikoak kudeatzeko prozedurak modernizatzen laguntzea, Udalak zehaztutako tresna informatikoak erabiliz.

E) Dirulaguntza jasotzen duten proiektuen eduki nagusiaosatzen duten jarduerak kudeatzea eta zuzenean egitea.

F) Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzea.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

G) Dirulaguntzaren jatorria behar bezala identifikatzea eta jardueraren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala zabaltzea. Horretarako, diruz lagundutako jarduera zabaltzeko erabiltzen den materialean, proiektuaren ondorio izan daitezkeen iragarkiak, kartelak eta argitalpenak txertatu beharko ditu, bai eta gauzatutako jardueren inguruko esku-hartze publikoetan ere.

H) Bere webgunean argi eta garbi adieraztea diruz lagundutako jarduerak Udalaren dirulaguntzen bidez gauzatzen direla.

12. EZ BETETZEAK ETA ITZULKETAK

Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, diruz lagundutako jarduerak sortutako diru-sarrerak eta dirulaguntzagatik sortutako interesak itzultzea, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatzea ere, dirulaguntza ordaintzen denetik bidezkoa den egunera arte.

13. ZEHAPEN-ARAU BIDEA

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.



Azpeitiko Udala

Azpeitian, 2025eko abenduaren 23an

Nagore Alkorta Elorza
Azpeitiko Udala

Ihintza Elustondo Leunda
Urola Komunikazio Taldea Koop. Elkartea



EKS | CSV: ESKU625564f2-5c86-40f2-b0f0-8bba14921cc1

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>